



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko irailaren 6a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00077. Galdera, administrazio publikoan sartu ahal izateko euskaraz jakin beharrari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (3. or.).
- 11-23/PES-00078. Galdera, Nafarroako haur guztiek euskara ikastearen ezinbestekotasunari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (3. or.).
- 11-23/PES-00079. Galdera, Nafarroako haur guztiek euskara ikasteari ezinbesteko ez iriztea edo administrazio publikoan sartu ahal izateko euskaraz jakitea beharrezkoa izan beharko ez litzatekeela uste izatea “euskararen aurkako jarrera”tzat jotzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (4. or.).
- 11-23/PES-00080. Galdera, biztanleria euskaldunari buruzko INEren eta VII. Inkesta Soziolinguistikoaren datuei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/PES-00081. Galdera, joan den abuztuaren 8an Etxarri Aranatzen ospaturiko “Inutilan Egune” delakoari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (5. or.).
- 11-23/PES-00082. Galdera, Jaitz Abartzuzako ikastetxeari atxikitzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Begoña Alfaro García andreak foru parlamentari karguari uko egitea (7. or.).
- Javier Arakama Urtiaga jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (7. or.).
- Jorge Aguirre Oviedo jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (8. or.).
- Jesús María Rodríguez Gómez jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (8. or.).
- Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren elduna aldatzea (8. or.).
- Mahaiaren erabakia, legegintzako batzordeak zehazten dituen (9. or.).
- Mahaiaren erabakia, batzorde bakoitzaren kideen kopurua ezartzen duena (10. or.).
- Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren 27/2023 ebazpena, irailaren 4koa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusia izendatzen baita (10. or.).

- 11-23/ELC-00001. Nafarroako Foru Komunitateari dagokion senataria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea (11. or.).
- Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko. Izendapena (12. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez erakundearen plantilla organikoa aldatzen baita. Akats zuzenketa (13. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emailak:

- 11-23/DFL-00004. 4/2023 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, tributu harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez luzatzen baita zenbait elikagairen gaineko balio erantsiaren gaineko zergaren zergatasen murrizketa (14. or.).

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00077. Galdera, administrazio publikoan sartu ahal izateko euskaraz jakin beharrari buruzkoa.*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, administrazio publikoan sartu ahal izateko euskaraz jakin beharrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun diezaion:

Zure ustez, euskaraz jakitea beharrezkoa izan beharko litzateke administrazio publikoan sartzeko?

Iruñean, 2023ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/PES-00078. Galdera, Nafarroako haur guztiek euskara ikastearen ezinbestekotasunari buruzkoa.*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako haur guztiek euskara ikastearen ezinbestekotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

dutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun diezaion:

Zure ustez, ezinbestekoa al da Nafarroako haur guztiek euskara ikastea?

Iruñean, 2023ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/PES-00079. Galdera, Nafarroako haur guztiek euskara ikasteari ezinbesteko ez iriztea edo administrazio publikoan sartu ahal izateko euskaraz jakitea beharrezkoa izan beharko ez litzatekeela uste izatea “euskararen aurkako jarrera”tzat jotzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako haur guztiek euskara ikasteari ezinbesteko ez iriztea edo administrazio publikoan sartu ahal izateko euskaraz jakitea beharrezkoa izan beharko ez litzatekeela uste izatea “euskararen aurkako jarrera”tzat jotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau auzetu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak jarraituko al du, 2021eko azaroaren 15ean 10-21/PES-00319 galderari emandako erantzunean adierazi zuenarekin bat, “euskararen aurkako jarrera” gisa hartzen ustea ez dela ezinbestekoa haur guztiek euskara ikastea edo euskaraz jakitea ez litzatekeela beharrezkoa izan beharko administrazio publikoan sartzeko?

Iruñean, 2023ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/PES-00080. Galdera, biztanleria euskaldunari buruzko INEren eta VII. Inkesta Soziolinguistikoaren datuei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, biztanleria euskaldunari buruzko INEren eta VII. Inkesta Soziolinguistikoaren datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

INEk bere webgunean eskainitako datuen arabera (<https://www.ine.es/jaxi/Tabla.htm?tpx=55502&L=0>), nafar populazioaren % 32k, 204.872 pertsonak alegia, ongi egiten du euskaraz, eta % 30,9k, 197.732 pertsonak, hala-hola. Kopuru horiek askoz altuagoak dira Nafarroako Gobernuak VII. Inkesta Soziolinguistikoan eskainitakoak baino. INEk eskainitako kopuruei inolako sinesgarritasunik ikusten al diezue? Harekiko harremanik egon al da, ulertzen saiatzearen zer balizko oker egin ahal izan den lagin-hautaketan, edo bestela, okerreko datuak VII. Inkesta Soziolinguistikoan eskainitakoak ote diren?

Iruñean, 2023ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/PES-00081. Galdera, joan den abuztuaren 8an Etxarri Aranatzeko ospaturiko “Inutilan Egune” delakoari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, joan den abuztuaren 8an Etxarri Aranatzeko ospaturiko “Inutilan Egune” delakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun diezaion:

Joan den abuztuaren 8an Etxarri Aranatzeko “Inutilan Egune” ospatu zen eta hura iragartzeko kartelean bi guardia zibilen irudia agertzen zen sugarren artean. Ekitaldi horren balorazio politikoren bat egiten al duzu? Uste al duzu bat datorrela programa-akordioak aldarrikatzen duen “bakearen eta bizikidetzaren kultura” horrekin?

Uste al duzu ekitaldi horiek, Ospa Eguna bezalako beste batzuekin batera, estigmatizatzen

dutela Estatuko segurtasun indarretako kideen eta haien familien kolektiboa? Ekitaldiaren antolatzailerengana edo Etxarri Aranazko Udalarengana jo al duzu edo jotzeko asmorik al duzu, balorazio hori helarazteko asmoz? Erantzunen bat jaso al duzu?

Iruñean, 2023ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/PES-00082. Galdera, Jaitz Abartzuzako ikastetxeari atxikitzeari buruzkoa.

ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak aurkezturiko galdera, Jaitz Abartzuzako ikastetxeari atxikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren babesean, eskatu du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Jaizko Udalak, 2022ko martxoaren 15ean, Nafarroako Hezkuntza Departamentuari eskatu zion Jaitz udalerria Abartzuzako Zumadia ikastetxeari atxikitzeko. Udalerrri hori gaur egungo Hezkuntza Mapan Lizarrako Remontival Ikastetxe Publikoari dago atxikia, baina Jaizko Udalak egoera hori aldatu nahi du. Eskaera Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoan erregistratu zen, 2022/335851 zenbakiarekin.

Jaizko Udalak zergatik ez du oraindik erantzunik jaso? Noiz jasoko du erantzuna?

Iruñean, 2023ko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Begoña Alfaro García andreak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Begoña Alfaro García foru parlamentari andreak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Begoña Alfaro García andreak foru parlamentari izaerari uko egiteko

aurkeztutako idazkia. Foru parlamentari izaera apirilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundee-tan lortu zuen Contigo-Zurekin hautagaitzaren barruan. Foru Dekretua 68. NAO-n argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Javier Arakama Urtiaga jaunak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Javier Arakama Urtiaga foru parlamentari jaunak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Javier Arakama Urtiaga jaunak foru parlamentari izaerari uko egiteko aur-

keztutako idazkia. Foru parlamentari izaera apirilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan lortu zuen Geroa Bai hautagaitzaren barruan. Foru Dekretua 68. NAO-n argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Jorge Aguirre Oviedo jaunak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Jorge Aguirre Oviedo foru parlamentari jaunak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Jorge Aguirre Oviedo jaunak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztutako idazkia. Foru parlamentari izaera apirilaren

4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan lortu zuen Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE hautagaitzaren barruan. Foru Dekretua 68. NAO on argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Jesús María Rodríguez Gómez jaunak foru parlamentari karguari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Jesús María Rodríguez Gómez jaunak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Jesús María Rodríguez Gómez jaunak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztutako idazkia. Foru parlamentari izaera

apirilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan lortu zuen Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE hautagaitzaren barruan. Foru Dekretua 68. NAO on argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eleduna aldatzea.

2023ko uztailaren 4ko idazki baten bidez Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak jakinarazi zuen Ramón Alzórriz Goñi jauna izendatzen zuela talde parlamentarioaren eledun, María Victoria Chivite Navascués andrearen ordean.

Iruñean, 2023ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mahaiaren erabakia, legeintzako batzordeak zehazten dituenak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duen abuztuaren 17ko 10/2023 Foru Dekretua. Kontuan hartuta ezen, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 67 eta 69. artikuluek xedatuari jarraituz, arau horietan berariaz aipaturiko legeintzako batzorde diren Foru Araubideko Batzordeaz, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeaz, Erregelamendu Batzordeaz eta Eskaera Batzordeaz gain, Mahaiak gainerako batzorde arruntak antolatuko dituela Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko Departamentuei doiturik, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Nafarroako Parlamentuko legeintzako batzorde direla, aipaturiko erregelamendu-arauetan zehazturikoez gain, honako hauek:

- Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordea.
- Memoria eta Bizikidetzaz, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordea.
- Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako Batzordea.

- Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea.
- Hezkuntza Batzordea.
- Osasun Batzordea
- Lurralde Kohesioko Batzordea.
- Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordea.
- Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordea eratzea
- Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea.
- Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordea eratzea.
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordea.
- Kultura, Kirol eta Turismo Batzordea.

2. Ezartzea talde parlamentarioek eta foru parlamentariaren elkarteak batzordeetan nahiz Europako Gaietako Ponentzian izanen dituzten ordezkariak izendatzeko **epea irailaren 6an bukatuko dela, 12:00etan.**

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mahaiaren erabakia, batzorde bakoitzaren kideen kopurua ezartzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Erregelamenduaren arabera prozesua burutu ondoren, Legebiltzarrean sei talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bat eratu dira. Horiek guztiek eskubidea eta betebeharra dute beren kide kopuruaren arabera batzordeetan ordezkatzuta egoteko, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 32.4 eta 51.1 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Hori horrela, Zerbitzu Juridikoek txostena egin eta Eledunen Batzarreko eledunek erabaki loteslea hartu ondoren, honako hau ERABAKI DUT:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuko batzordeak osatuko dituzten foru parlamentariak hamalau izanen direla.

2. Batzorde bakoitzeko kideen guztizko kopurua honela banatzea talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarteen artean:

Unión del Pueblo Navarro	4
Nafarroako Alderdi Sozialista	3
EH Bildu Nafarroa	2
Geroa Bai	2
Nafarroako Alderdi Popularra	1
Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa	1
Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarte	1

3. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarreetako eledunei helaraztea.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren 27/2023 ebazpena, irailaren 4koa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusia izendatzen baita.

Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren 20.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, legelari nagusiak izendatzen du gelazain nagusia, Gelazainen Kidegoko funtzionarioen artean. Zerbitzu Orokorretako buruak egin duen txostena ikusita, aurreko gelazain nagusiak erretiroa hartu ondoren lanpostu hori bete beharra dagoenez, honako hau

EBATZI DUT:

1. Nafarroako Parlamentuko Gelazainen Kidegoko funtzionario Ana Isabel Esnoz Larrey andrea izendatzea Nafarroako Parlamentuko legelari nagusi, 2023ko irailaren 5etik aitzinako eraginez.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Legelari nagusia: Silvia Doménech Alegre

11-23/ELC-00001. Nafarroako Foru Komunitateari dagokion senataria hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 235. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Espainiako Konstituzioaren 69.5 artikuluari eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 12 artikuluari dagokienez, honako hau ERABAKI DA:

1. Eledunen Batzarrarekin ados jarrita, Nafarroako Foru Komunitateari dagokion senatarikopurua batekoa dela finkatzea. Senatari hori hautatzeko prozedura Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 235. artikuluan ezarritakoa izanen da.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen senatari izateko hautagaiak aurkezteko epea finkatzea, eta **epe hori 2023ko irailaren 14an bukatuko dela, 14:00etan.**

3. Hautagai bakoitza aurkezteko idazkiarekin batera, zeina hautagaitza aurkeztu duen talde parlamentarioaren edo foru parlamentarien elkar-tearen ordezkariak sinatua egonen baita, beste agiri hauek aurkeztu beharko dira: hautagaitza onartzearen adierazpena; Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 6. eta 154. artikuluetako hautaezintasun-arrazoirik ez dagoela dioen zinpeko adierazpena; hautesle-eroldan dagoela dioen ziurtagiria, eta hautagaia Nafarroako udalen batean erroldatuta dagoela dioen ziurtagiria.

4. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzeko.

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts (A mailakoa) oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, zeina 2022ko abenduaren 15eko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (deialdiaren aldaketa, 2023ko urtarrilaren 4ko 2. NPAOn argitaratua) eta 2022ko abenduaren 27ko 259. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (deialdiaren aldaketa, 2023ko urtarrilaren 5eko 4. NAOOn argitaratua) argitaratu baitzen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2023ko ekainaren 30ean hartutako erabaki bidez onetsi zen oposizio-lehiaketaren epaimahai kalifikatzaileak Miguel Ángel Laurenz Itoiz jaunaren eta Isabel Cañas Palacios andrearen alde egindako izendapen-proposamena, zeina 2023ko uztailaren 5eko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2023ko uztailaren 20ko 151. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du interesdunek deialdiko 7.3 oinarrian adierazita dagoen dokumentazio guztia behar den epean eta

moduan aurkeztu izanari buruz. Hartara, txosten hori ikusita eta deialdiko 8. oinarrian ezarritakoa-ekin eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna izendatzea Nafarroako Parlamentuko Legelarien Kidegoko funtzionario (A mailakoa).

2. Isabel Cañas Palacios andrea izendatzea Nafarroako Parlamentuko Legelarien Kidegoko funtzionario (A mailakoa).

3. Ezartzea interesdunek hilabeteko epea izan dutela, izendapena jakinarazten zaienetik aitzina, beren karguaren jabetza hartzeko Parlamentuko Legelari Nagusiaren aurrean.

4. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta Zerbitzu guztietako buruei igortzea.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena, zeinaren bidez erakundearen plantilla organikoa aldatzen baita.

AKATS ZUZENKETA

Aipatu ebazpena argitaratzean honako akats hau egin zela ikusi da, hirugarren eta laugarren paragrafoetan hain zuzen ere (2023ko uztailaren 5eko 3. NPAO):

Honako hau dioen tokian:

"Aldaketa honek aldeko txostenak jaso ditu, Kontuen Ganberako administratzaileak, kontu-hartzaileak eta Langileen Batzordeak eginak.

Hori guztia kontuan hartuz, lehendakaria naizen aldetik, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta, honako hau"

honako hau jarri behar da:

"Aldaketa honek aldeko txostenak jaso ditu, administratzaileak eta kontu-hartzaileak eginak, bai eta erakundeko idazkari nagusiaren oniritzia ere.

Hori guztia kontuan hartuz, eta Langileen Batzordeari entzun ondoren, lehendakaria naizen aldetik, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta, honako hau"

Iruñean, 2023ko uztailaren 28an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

11-23/DFL-00004. 4/2023 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, tributu harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez luzatzen baita zenbait elikagairen gaineko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasen murrizketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak ziurtagiria igorri du, honako legegintzako foru dekretuarena: 4/2023 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, tributu-harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez zenbait elikagairen gaineko balio erantsiaren gaineko zergako zerga-tasen murrizketa luzatzen baita.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 183. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea tributu-harmonizazioari buruzko uztailaren 5eko 4/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, zeinaren bidez zenbait elikagairen gaineko balio erantsiaren gaineko zergako zerga-tasen murrizketa luzatzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

4/2023 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, tributu harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez luzatzen baita zenbait elikagairen gaineko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasen murrizketa.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu araubidea estatuko tributu araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZa) ordainaraztean, Nafarroak Estatuko lurraldean une bakoitzean indarrean dauden oinarritzko printzipio, arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Horren ondorioz, Nafarroak bere tributu araubidea aldatu behar du zerga horien arau substantibo eta formalei eragiten dien tributu araubide erki-dearen erreformaren bat dagoenean. Helburu horrekin, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 53.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eskuordetuta, tributuei buruzko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak ematen ahalko dituela. Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretuaren izena emanen zaie.

Estatuaren eremuan, ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege-dekretuaren bidez zenbait neurri hartu dira, eta beste batzuk luzatu, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, La Palma uhartea berreraikitzen laguntzeko eta beste

kalteberatasun-egoera batzuei laguntzeko, bai eta Europar Batasunak merkataritza-sozietateen egiturazko aldaketei eta gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzeari buruz emandako zuzentarauen transposizioa egiteko eta, orobat, Europar Batasuneko zuzenbidea betearazteko eta betetzeko ere. Errege lege-dekretu horretan erabaki da, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, 2023ko bigarren seihilekoan ere oinarritzko elikadura-produktuei ehuneko 0ko zerga-tasa aplikatzea, eta oliba-olioei, hazi-olioei eta jateko pastei, berriz, ehuneko 5ekoa, hori guztia elikagai horien azken prezioa jaisten laguntzeko asmoz. Nolanahi ere, tasa horien aplikazioa azpiko inflazioaren urtetik urterako tasaren bilakaeraren mende dago.

Horregatik guztiagatik, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu hau eman behar da, BEZari dagokionez Nafarroako Foru Komunitatean aplika daitezten Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berak.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2023ko uztailaren 5ean egindako bilkuran hartuta erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Elikagaien entrega, inportazio eta eskurapen jakin batzuetan, Europar Batasunaren barrukoetan, aldi baterako aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa, bai eta baliokidetasun-errekarguaren ondorioetarako ere.

Ondorioak 2023ko uztailaren 1etik aurrera eta indarra 2023ko abenduaren 31ra bitarte izateko:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

- a) Oliba-olioa eta hazi-olioak.
- b) Jateko pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0,62koa izanen da.

Halere, 2023ko azaroaren 1etik aurrera, aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 10ekoa izanen da, baldin eta iraileko azpiko inflazioaren urtetik urterako tasa (urrian argitaratzen dena) ehuneko 5,5 baino txikiagoa bada. Kasu horretan, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 1,4koa izanen da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen

Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren ore izoztua eta ogi arrunt izoztua ere, soil-soilik ogi arrunta egiteko erabiltzen direnak.

b) Ogi egiteko irinak.

c) Edozein animaliak emandako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT motakoa, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Fruta, barazkiak, ortuariak, lekariak, tuberkuluak eta laboreak, Elikadura Kodearen eta hori garatzeko emaniko xedapenen arabera produktu naturalen izaera dutenak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0koa izanen da.

Halere, 2023ko azaroaren 1etik aurrera, aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 4koa izanen da, baldin eta iraileko azpiko inflazioaren urtetik urterako tasa (urrian argitaratzen dena) ehuneko 5,5 baino txikiagoa bada. Kasu horretan, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0,5ekoa izanen da.

3. Zerga-tasaren murrizketaren onura osoa kontsumitzaileak jasoko du eta, beraz, murrizketaren zenbatekoa ezin izanen da erabili, ez osorik, ez partez, enpresen mozkin-marjina handitzeko, produktuen ekoizpen, banaketa edo kontsumo katean prezioak igota, deusetan galarazi gabe ukitutako sektoreek, erantzukizun soziala dela eta, konpromiso gehigarriak beren gain hartzea eta publizitatzea.

Neurri honen eraginkortasuna egiaztatuko da prezioen bilakaeraren jarraipena egiteko sistema batekin, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egin beharreko jarduketaz gain betiere.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta bertan ezarritako ondorioak izanen ditu.

Iruñean, 2023ko uztailaren 5ean

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

